


bidegileak



Mariano Izeta (1915-2001)

Egilea:

JON ABRIL

Prezidio handiko gizona

*P*rezidio handiko erloju baten gisara, zuzen-zuzen, txukun-txukun jardun zen Mariano Izeta bizitzako arlo guztietan. Euskaltzale, idazle, bere herriaren maitale. Baina gauza denen gainetik bere izaera nabarmendu zen. Erlojuko orratzen gisara, erritmoari beti so, bidea egiten zuen, arrastoa utziz.

Berekin solasean egoteko aukera izan zuen edonork azpimarratuko luke Mariano Izetaren gizatasuna zein mintzatzeko grina. Umore onekoa, gizon atsegina, euskaltzale porrokatua, langile fina izan zen Mariano Izeta Elizalde. Bere sorterriari erabat atxikia egon zen jaioz geroztik. Bere lanak lotura estua izan zuen ibilbide osoan bere herriarekin: Baztan.



Mariano Izeta (1915-2001)

1915eko uztailaren 14an jaio zen Elizondoko *Mutilenia* etxean. Federiko Izeta eta Juana Elizalderen zortzi seme-alabetan seniderik zaharrena zen (Mariano, Juan Julian, Maria Teresa, Bittori, Eusebio, Mikaela, Karmentxu eta Joxe Mari). Gabriela Goñi Olaetxearekin ezkondu zen 1963ko maiatzaren 15ean, eta bi alaba izan zituen, Maria Ines eta Juana Mari.



Mariano Izeta urte bat zuela



Erlijioak leku berezia izan zuten Marianoren bizitzan Argazkian Lehen Jaunartzean

Aita zarauztarra zuen, eta 1902an joan zen Elizondora bizitzera. Erloju-denda paratu, eta hura izan zuen ogibide. Hura bera jaso zuen Marianok gerora ere. Bizi guztia pasa zuen erloju-dendan lanean, eta ez zen inoiz jubilatatu. «Nik lanean segitu nahi dut. Erlojutegiko mahaian eseritzen naiz eta batzuetan erloju-
ren baten barrunbeak aztertzen eta beste batzuetan nere liburu eta artikuluekin segitu nahi nuke», erran zuen 1992ko Bertso

Egunean omenaldia jaso zuenean. Erloju-denda hartan ikusi zuen denborak nola egiten zuen aitzinera, eta erlojuen orratzei so, anitzetan geldituak egonagatik ere, orduak aitzin egiten zutela ikusi zuen Marianok. Berak eragin zuen, bere ttikian, bere handian, denborak aitzinera jotzea, euskararen eta euskal kulturaren eremuan batik bat.

Erloju-denda erreferentzia garrantzitsua bihurtu zuen Elizondoko karriketan, harik eta

Mariano hil zen arte. Lanean, baina beharrezkoa zenean patxada lagun, jendea atsegin handiz hartzen zuen. Marianorekin bat egiteko topaleku bikaina izan zen. Euskararentzat territorio askea izan zen hura gerra osteko urte gogorretan. Eta hala bildu zuen Martin Garde euskaltzale baztandarrak ere Marianoren omenaldi baten karietan. «Garai bateko kafetegi literarioen antzekoa da erlojutegia. Elizondoko zentro kulturala bilakatu da.» Behar adina garrantzia behar du horrek, ez baitzen erraza euskaraz aritzea sasoi hartan. Langile nekaezin baten lan-tokia, orratzen joan-etorria baino azkarrago

anitzetan, bizigarri bihurtu zen hizkuntza zein kulturarentzat, seguruenik inor ohartu gabe, ezta Mariano bera ere.

Hori guztia ederki islatu zuen Gotzon Garatek Mariano Izetaz solastatzerakoan. «Gazte nintzelarik, 1957. urtetik aurrera Lamiarritan, Bozate auzoan (Arizkunen) ematen nituen udaldiak. Baztan miresgarri, eder, adiskidetsu horietan. Garai hartan ezagutu nuen Mariano Izeta. Orduko ospetsu zen Baztan guzian bere euskaltzaletasunarengatik. Elizondora berenberegi joan nintzen. Mariano ezagutzera. Erloju dendan aurkitu



Zortzi seme-alabetan zaharrena zen Mariano. Argazkian anaia-arreba guztiak elkarrekin, 1980. urtean

nuen, lehiatsu lanean, alai, hitzun eder, berak bezala euskara biziki maite gazte batekin mintzatzeko lau lorietan. Geroztik beti gelditu naiz haren erranei eta eginei lotua. Mariano urte eta urteetan, etengabe, Baztango euskararen legamia izan da. Ez zen eskualde horretan euskararen alde saiorik edo jairik egiten, Marianok aldez edo moldez harremanik izan gabe. Idatzi, hitz egin, jendeari euskara maite dezan aholkuz bihotza altxatu joan batera eta

bestera, Baztango hizkuntzaren kondaira ezin liteke idatz Mariano Izetaren izena goraki aipatu barik. [...] Mariano Izeta ezagutzeko parada izan dugunok haren lanarekin batera beraren izakera goxo eta adiskidetsua miretsi izan dugu. Jakin beza erein dituen hazi onak uzta ona ekarri eta gu guzian esker ona irabazi duela. Baztanen euskara mintzatuko den bitartean Mariano Izetaren izena ez da iraungiko.»



Baztango seme kuttun izendatu zuten 1997an. Argazkian emaztea, alabak, suhiak eta bilobekin

Hastapenak

Lehenbiziko ikasketak herriko eskola nazionalan egin zituen Marianok, garaiko ikasleengisan, gaztelania hutsez. Sasoi hartan gaztelania zen nagusi Elizondoko karriketean, baina hori ez zen oztopo izan euskararekiko grina bizteko. 14 urte zituela utzi zituen ikasketak, eta aitaren erloju-dendan hasi zen lanean, 1929an.

Mariano Izetak ez zuen aukerarik izan euskarazko eskolarik jasotzeko, baina garai hartarako inor gutik zuen aukera eduki zuen.



Erloju-denda irla tiki bat bihurtu zen euskararentzat Elizondon nagusi zen giro erdaldunaren aitzinean

Marianok berak onartu zuen bere eskola berezia zela. Clementina Akerreta zen maestra, eta Baztango baserritarrak bertan biltzen zirenez, euskaraz idazten zein irakurtzen irakasten zien. Kristau dotrina bi hizkuntzatan ikasteak elizkizunak elebiz egitea ekarri zuen, eta kantuak euskaraz egiten ziren. Urriko prozesioko errosarioa ere euskaraz egiten zen.

Hura aitzinkari bat izan zen, 1934an ireki baitzen estreinako ikastola Elizondon. Ignazio Iturria Alzate izan zen bultzatzaile nagusia, eta diruz lagundu zuena. Abokatu, Euzko Etxeko lehendakaria eta zuzendaritza taldeko kide hainbat urtez, eta Udaleko zinegotzia izan zenak ordaintzen zituen andereñoaren soldatak, liburuak, eta gainerakoak. Lehenbiziko ikastola hura Elizondoko Txokoto auzoko Zubiri etxean finkatu zen, *Antxitonea*



Gaztetandik hasi zen lanean erloju-dendan, aitarekin. Irudia 18 urte zituela aterata dago

trinketaren aldamenean. Berrogeita bat haur biltzen ziren ikastola hartan. Miguel de Alzo Lekarozko kaputxinoa eta Pilar Alba Loiarte andereño goizuetarrak eman zuten laguntza pedagogikoa. Lanean hasi eta berehala itxi zuten eskola eskualdeko ikuskatzaileak, bai-



Eskola garaian, zortzi urte zituela, dotore-dotore jantzita

men batzuk falta zirela argudiatuta. 1936ko otsailean berriz ere ireki zuten ikastola, artean baimen guztiak zituela, baina urte hartako udan gerra biztu eta Pelaioen kuartela bihurtu zen ikastola. «Gerra lehertu bezala reketek sartu ziren ikastolan atea bortxatuta, liburu guztiak erre, eta euren koartela paratu zuten bertan», oroitzen zuen Izetak. 70. hamarkadara arte ez zuen ikastolarik ezagutu Elizondok, eta berreskuratzen lan horretan eragin zuzena izan zuen Mariano Izetak. Garai hartan bertan, eskolako haur erdaldunei euskarazko klaseak eman zizkien, bere borondatez, beharra sumatu zuelako. Eta gauza bera egin zuen Gau Eskolarekin. 1974 eta 1977 urteen artean Elizondon sortu berria zen Gau Eskola eta irakasle lanetan jardun zen, helduak euskalduntzeko ahaleginen.

1934an ikastola sortzea, hala ere, ez zen erraza izan. Elizondon giro erdalduna zen nagusi, baina Marianoren erloju-denda irla tiki bat izan zen euskararentzat. Bezero gehienekin euskaraz egiten zuen erloju-dendan, bizi guztian bezala. Gogoan zuen Mariano Izetak Errepublikara garaian nolabaiteko pizkunde bat sumatzen zela euskararekiko Baztanen. Baina gerrak iluntasun itzela utzi zuen euskararentzat, zein euskal kulturarentzat. Hala ere, orduan piztu zitzaion euskararekiko grina. «Hainbertze urtez kultura zangopean egon ondotik, Arantzazuko amabirjinaren egutegia argitaratzea lortu zuten Arantzazuko fraideek,

eta orduan sekulako lorpena erdietsi genuela iruditu zitzaigun. Tako pila bat ekarri eta hemen saldu nizkien batzuri eta besteri. Ondotik, *Arantzazu* aldizkaria argitaratu zuten, eta ni aldizkari honetan idazten hasi nintzen, 1957an. *Principe de Viana* aldizkarian ere idazten hasi nintzen, *Nafar Izkuntzan*,

Herrian...» Horrela laburbildu zuen Xorroxin Irratirako elkarrizketa batean nola ekin zion komunikabideetan idazteari. Horretan zuzeneko eragina izan zuen Aita Aurelio Ezkerra kaputxinoak. Aurelio Ezkerra etxarri-aranaztarra Lekarozko ikastetxean zen, eta berak animatuta ekin zion idazteari.



Euskara hedatzeko edozein ahalegin zen guti, eta eskolako ikasleei euskara irakatsi zien garai batean

Ohorezko euskaltzain

Ibilbide luze baten hasiera baino ez zen izanen hastapen hura. Euskal giroan murgiltzen hasi zenean, gaztetandik erakutsitako euskarekiko grinak, Baztango euskara aztertzeke egindako ekarpenak, eta han-hemen egindako lanek euskaltzain urgazle izendatua izatera eraman zuten 1961ean. Frantzisko Tirapu eta Felipe Murieta izendatu zituzten Mariano Izetarekin batera, 1961eko azaroaren 24an, Elizondoko Herriko Etxean egindako ekitaldian jaso zuen izendapena. Gerora, Aingeru Irigaraik euskaltzain oso izateko

proposamena egin zuen. Honek, hala ere, ez zuen aitzinera egin, nagusiki ordurako zuen adinagatik, eta lanean berdin jarraituko zuen segurtasuna zutelako gainerako euskaltzainek.

2000. urtean, ordea, Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen, hil baino bi hilabete lehenago. Urriaren 27an Jose Antonio Retolaza, Pierre Andizabal, Junes Casenave, Suzuko Ainhoa Tamura, Jan Braun eta Bitoriano Gandiagarekin batera eman zion izendapenik gorenena Elizondoko semeari.



1979an Elizondon elkartu zen Euskaltzaindia. Ezkerretik hasita Joxe Urroz baztandarra, Mariano Izeta, Timoteo Plaza alkatea, Aita Villasante, Juan San Martin, Manuel Irujo eta Jean Haritschelhar



Aingeru Irigaraik euskaltzain oso izateko proposatu bazuen ere, ez zen aitzinera atera eskaria

Baztango berriemaile

«Eguneroko gertakari eta bitxikerien berriekari xume» gisa definitu zuen bere burua. Baztango albisteak ematen jardun zuen, batik bat, Mariano Izetak urte anitzez. Bertan gertatzen ziren albisteak, herri-kirolak, bertsolaritza kontuak, nekazaritza, azokak, bestak... eta gertaera ororen berri ematen zuen. Etxean *Zeruko Argia* hartzen zuten, eta horrek, eta Arantzazuko egutegian agertzen ziren testu motzek bultzatu zuten Mariano idazle lanetan jardutera. Eskuetara zetorkion guztia irakurtzeko ohitura zuen. *Zeruko Argian* ekin zion, hain zuzen, kazetari lanei. Ondotik *Principe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian *Erriz Erri* sailean bildu zituen hainbertze artikulu, 1966 eta 1980 urteen artean. Horietan guztietan, bere jatorrizko izena ez ezik, «Anzanarri» izengoitia ere erabili zuen maiz. Arestian aipatutako bi komunikabide horietaz gain, *Herrian*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Diario de Navarra*, *Navarra Hoy-en* eta *Diario de Noticiasen* idatzi zuen, eta irratigintzan Baztan-Bidasoako *Xorroxin Irratian* eta Nafarroa Behereko *Irulegi Irratian* jardun zuen. *Xorroxin Irratian* ahots ezaguna bihurtu zen, eta albisteak ez ezik, ezagunak ziren hagitz, bere salerosketa kontuak.


Horietaz guztietaz gain, zenbait artikulu berezitu idatzi zituen, etnografiarekin zein bertsolaritzarekin loturikoak, batik bat. Hala, kislabeak, Orakunde ospakizuna, inau-

teriak eta Urtsuko ermitako berriak landu zituen.

Kazetari lanekin hasitako ibilbideak jarraipenik izan zuen literaturarekin. «Sentimendua beharrezkoa da idazterako orduan», aitortu zuen. Ipuinak idazten hasi zen, herri-ipuinak nagusiki, eta horiek bildu zituen gerora *Nigarrez sortu nintzan* liburuan, eta *Arantzazu* aldizkarian. *Sorgiñak infernuko errekan* ipuina Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurla-



Erratari lanak bete zituen hainbertze denboran. Xorroxin Irratiak omenaldi berezia eskaini zion 1990ean



Dirua galgarri (1962)



Nigarrez sortu nintzan (1982)



Baztango hiztegia (1996)



Baztango kontuak (1999)

ritzak Isabel Lertxundi eta Jesus Mari Loidiren omenez antolatutako sariketako finalista izan zen. Baina hori baino lehen ere argitaratua zuen bere lehenbiziko liburua Mariano Izetak. *Dirua galgarri* izan zen bere lehenbiziko lana, 1962an argitaratua eta bi urte lehenago idatzia. Diru ebasketa baten berri ematen zuen lan horretan. 1982a arte ez zuen bertze libururik argitaratu izetak. *Nigarrez sortu nintzan* lanak baztandar apal baten bizitza erakusten du, sortu zenetik hil bitartekoa. Hiztegegintza eta Baztango kontuak bildu zituen gerora karrikaratutako hiru liburuetan: *Baztango hiztegi ttipia*, 1985ean; *Baztango hiztegia* 1996an; eta 1999an *Baztango kontuak*. Arturo Campionen *Los hermanos Gamio* itzuli zuen, eta bertze zenbait literatur lan ere egin zuen: *Lamizilo*, *Arron-doa*, *Bizitorea* eta *Ortots goibelak*. Horietan guztietan, kazetaritza zein literatur lanetan, Baztango euskara zerabilen Marianok.

Bere herriko hiztegegintzan lan eskerga egingakoa zen. Horretarako Juan Bautista Gorosurreta Amaiurko apaizaren eta Resurreccion Maria Azkueren lana izan zituen oinarri. Bilketa lanik nagusia bere erloju-dentatik egiten zuen. Berak han-hemenka bildutakoez gain, bertara joaten zitzaizkion hainbertze herritar hitzen eta kontuen berri ematera. Gorosurreta 1845 eta 1933 urteen artean bizi izan zen, eta Baztango hainbertze hitz bildu zituen. Hiztegia, hala ere, ez da hiztegi bukatua, eta horretaz ohartarazi zuen Pello Salaburu euskaltzain baztandarrak. Baina lan horretan laguntzailerik finenak herritarrak izan zituen. Baztango 15 herrietako gehiengutan laguntzaileak zituen, eta erloju-dendara etortzen zitzaizkion batean zein bertzean bildutakoak jakinaraztera. Bezeroei erreparatuz ere jaso zituen, aniztetan, hitz, erranairu, erramolde eta gainerakoak bere hiztegi lanak osatzeko. Anizko Pello Mari Azkarate zuen

laguntzailerik finenetakoa horretan, hamabortzean behin joaten baitzitzaion bisitan hitz zerrenda eskuetan zuela. Arizkungo eta Erratzuko laguntzaileak ere izan zituen zeregin horietarako. Bildutako hitz guzti-guztiak oraindik erabiltzen direnak dira, baina anitz eta anitz zaharrek baino ez zituztela erabiltzen ohartarazi zuen liburua argitaratzeko tenorean.

Hiztegi gintzaz gain, bertako erranairu, erramolde eta asmakizunak bildu zituen, herri-hizkuntzaren lekukotza gisa. Horiek bildu

zituen *Diario de Navarra* eta *Euskera* aldizkarian. Mariano Izetak jasotako erranairuak erabili zituzten euren lanetan Antoni Zavalak (*Esaera zaarren bilduma berria (I, II)*) eta Gotzon Garatek, *Euskal atsotitzak* bilduman.

Idazteko grina hori kazetaritza eta literatura lanetara ez ezik, eguneroko bizimodura eramane zuen. Berezko memoria izugarria izanagatik ere, gauza guztiak idazteko ohitura zuen. «Duela 50 urtekoak ez zaizkit atzentzen, bart gauekoak, ordea, ezin gogoratu zabil», aitortu zuen *Argia* aldizkarian. Ondorioz, lanean



Legate mendia zen bere txokorik kuttunenetakoa, eta bertara igotako kopurua zenbaturik zuen. Argazkian 100. aldia

zela oharrak hartzen zituen, inor zerbait kontatzera joaten zitzaionean paper muturren batean idazten zituen kontuak. Etxera joandakoan, eta bazkaldu aitzinetik, haiek guztiak txukun-txukun paratzen zituen, eta ilunabarretan edota asteburuetan makinaz idazten zituen guztiak. Egunero egindako gauzak egunerokoan idazten zituen, ttikienak ere. Hala,

ez da harritzekoa bere argazki bilduman aurkitutako aipamen ugariak. Bertzeak bertze, Legate mendira igotako aldi guztiak zenbatzen zituen (160 aldiz goitua), txirrindula probetako partaideen izen-abizen guztiak bildu, edo bertso saioetako partaide eta gaien bilduma gordetzen zuen. Ohitura hori hil baino egun batzuk lehenago arte mantendu zuen.

Bertsogintzaren eragile

Nafarroan bertsolaritza berpizteko Mariano Izetak egindako lanak ez du parekorik. Espainiako Gerra aitzinean, jadanik, jardun zuen bertsolaritza han-hemen hedatzen. Lan hori guztia eskertuz Nafarroako Bertsozale Elkarteko ohorezko lehendakari izendatu zuten. Baikor ageri zen bertsolaritzak Nafarroan bizi zuen egoerarekin. 1996an, hala agertu zuen bere iritzia: «Ordutik hona, nire ustez bertsolaritza ez da funtsean hainbertze aldatu. Dena dela, aipatzekoa da egun bertso eskolek betetzen duten lan polita. Baitere, azpimarragarria da emakumearen sarrera bertso munduan. Nafarroan Estitxu Fernan-

dez eta Estitxu Arozena bezalako puntako bertsolariak izatea itxaropen handikoa da. Emakumezkoek beste dohai bat dute bertsoan, gizonezkoak baino garbiago, bixiago eta sakonago mintzatzen dira».

Euskararekiko loturak bultzaturik, eta inguruan bertsolariak ere bazituela aintzat hartuta, 1936an Lehendabiziko Nafarroako Bertsolari Txapelketa antolatzeari ekin zion. Urtarrilaren 12an jokatu zen *Antxitonea* trinketean, Euskaltzaleak elkarteak antolatua, Donostiako Euzko Gaztedik eta Elizondoko Euzko Etxeak lagunduta. Guztira hamar bertsolari bildu ziren lehenbiziko Txapelketa hartan. Bittor eta Esteban Etxeberriarekin bate-



Nafarroako bertsolaritzaren suspertzailerik nagusienetakoa izan zen Mariano. 1960ko uztailaren 25ean Perurenak saria jaso zuen, Izetaren eskutik, aldamenean Alfonso Irigoien gajartzalea zuela

ra, bateko eta bertzeko bertsolariak biltzen aritu zen. Txapelketa egunean Rafael Garmendia taxistarekin joan zen bertsolarien bila. Saio hura Iruritan sortu, baina Bankan bizi zen Juan Felix Iriarte hogeita hiru urteko gazteak irabazi zuen, eta haren gibeletik gelditu ziren Aldudeko Harriet, Ultzamako Joxe Mari Mutuberria eta Amaiurko Punpurusta.

Baina bertsolaritza, bertze hainbertze adierazpen bezala, klandestinitatera mugatu zen Gerra garaian, zein gerora ere. 1960an berriz ere ekin zioten Nafarroako Bertsolari Txapelketa antolatzeari. Orduko hartan Pedro Diez de Ultzurrun izan zuen laguntzaile. 1962ko San Anton egunean, lehenbiziko aldiz aritu zen gaiak paratzen Mariano Izeta, bere jaioterrian, Elizondon. Garai hartan ez zen erraza gisako ekitaldiak antolatzea, zentsurak aitzinetik bertsolariek zer kantatu behar zuten eskatzen baitzuen, eta hori ezinezkoa zen, bat-bateko jarduna izaki. Baina Marianok berehala topatu zuen hura saihesteko bidea. «Besta hau Nafarroako Diputazioneko Principe de Viana erakundeko laguntzarekin egiten da» leloa idazten zuen, eta horrela zentsurak ez zion jarraipenik egiten.

1962ko Txapelketan antolakuntza lanetan aritzeaz gain, epaile lanetan ere aritu zen Mariano. Hala ekin zion, gero urte luzez arituko zen zeregin horri. 1967ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian ere aritu zen epaimahaikide lanetan. Final hura aski ezaguna

egin zen Xalbador sailkatu zelako azken zatirako, Lazkao Txiki kanpoan geldituz. Epaimahaikideek txistu aldi oparoa jaso zuten. Nafarroan 1980an berreskuratu zen Bertsolari Txapelketa, eta ordutik eta 1986a arte aritu zen epaile lanetan Mariano Izeta.

Baina lehenago ere aipatu bezala, gai jartzaile lanetan anitz aritu zen Mariano. Gerra ondorengo lehenbiziko txapelketetan Alfontso Irigoien joaten zen saioetako gaiak paratzera.



Garaiko bertsolariekin harreman estua eduki zuen, eta horietako anitzi paratu zizkien gaiak, tartean Lasarteri

Bere ereduari jarraitu zion Marianok. 40 saio-tan paratu zituen gaiak Elizondon, eta bertze hainbertze Elizondotik kanpo. Mariano Izeta umore oneko gizona zen, eta bere ezaugarri-rik nabariena gizatasunarena zen. Hala ere, bertsolaritzak ekarri zion gatazka bakarra, eta gaizki ulertu baten eraginez. 1970ean Zubietako bestetan, amabirjina egunez, Migel Arozamena eta Manuel Lasarte aritu ziren kantuan. Goizean apaizek ezkondu behar ote zuten aritu ziren abesten bi bertsolariak. Arratsaldeko saioa aditzera joan zen Mariano Izeta Elizondotik Zubietara. Han entzundako-ekin kronika idatzi zuen *Principe de Viana* aldizkarirako, eta horrek eragin zizkion Zubietako erretorearen kritikak. Aldi hartan ez bertze, inoiz ez zen inor gaizki erraka aritu Marianoz. Harreman estua izaten zuen bertsolariekin Marianok. Bertsolariekin hitzordua gutun bidez izaten zuen, eta horiek guztiak gordetzen zituen, txukun-txukun, Marianok. Xalbadorrekin harreman berezia izan zuen, anitz estimatzen baitzuen Urepeleko bertso-laria. Baina Xalbadorrek ez zuen begi onez ikusi behin Izetak paratutako gai bat, antzineko asteen Oiartzunen gai bera paratu ziotelako.

Bertsozale amorratua izanagatik ere, ez zen bertsotan aritzen. «Ez dut sekula bertsotan itxura antzean egiten ikasi eta inoiz bertso ikasiren bat jendaurrean kantatzen hasi nai-zen bakoitzean trabatuta ibili naiz eta ez dut

ezer egiteko asmorik», erranketu zuen. Baina, oro har, kantatzea izugarri maite zuen, eta afa-londoko giroetan ohikoa izaten zen Mariano kantuan sumatzea. Euskal kantuekiko grina bizikoa zen.



Bazkalostean kantuan aritzea ikaragarri maite zuen. Argazkia 1998ko apirilaren 26an ateratakoa da



Eragile, antolatzaile, aurkezle eta epaimahaikide izan zen Nafarroako Bertso Txapelketan. Argazkia 1960ko uztailaren 25ean ateratakoa da, Elizondon

Baztan kuttuna

Baztanek izan duen ordezkariarik nabarmene-
netakoa izan da denbora anitzean Mariano
Izeta. Baina etxe barrenean ere, jardun eredu-
garria izan zuen. Herri mugimenduekin, zein
udaleko jardunekin hertsiki loturik aritu zen,
eta alor anitzetan jardun zen. Hemezortzi
urteak bete bezala Euzko Alderdi Jeltzaleko
kide egin zen. 1933ko uztailearen 28an eskura-
tu zuen Napar Buru Batzarreko zen Jexux
Doxandabaratzek sinatutako txartela. Urte
berean egin zen Elizondoko Euzko Etxeko
kide. Hori izan zuen politikagintzarekin lehen
harremana. 1957 eta 1958 urteen artean
Elizondoko alkate juradoa izan zen, eta dikta-
dura bukatu ondotik, lehenbiziko hauteskun-
deetan EAJko zerrendetan joan zen. Timoteo
Plaza izendatu zuten Baztango Balleko alkate,
eta Mariano udalbatzarreko kultura zine-
gotzia izan zen. Lau urteko hartan baino ez
zen aritu zeregin horietan, ondotik Julio
Iturrালের Union Baztanesa alderdiak esku-
ratu baitzuen alkatetza. Eskuineko agintarien
jokamoldea ez zuen batere maite, baina haiek
hala eskatuta, herrietako bestetako progra-
mak eta bertze paper batzuk bere boronda-
tez euskaratu zituen, eta hala eskatzen zio-
nean itzulpenak egiten zituen, ahozkoak zein
idatzizkoak.

1982an Madrilgo Gorteetarako EAJren ze-
rrendan joan zen. Harekin eman zion akabera
bere ibilbide politikoari, gerora EAJ barrene-

an izandako hausturek min handia eman bai-
tzioten.

Herriarekiko maitasuna azkarki aldiz erakutsi
zuen Marianok. Arestian aipatu bezala, ikasto-
laren bultzatzaile sutsua izan zen gerra aitzin-
ean, baina baita diktaduraren hondar urtee-
tan ere. Baztan Ikastolak hastapen haietan



Politikagintzan bere ibilbidea egin zuen, tartean Elizondoko alkate izan zen

izan zuen zutarrietakoa izan zen, batik bat etxez etxe jendea biltzen egindako lanean.

Mendigoizale aparta izan zen, eta Legate mendira goitzea zuen gauzarik kuttunenetakoa. Txirrindularitza eta pilota ere hagitx gustukoak zituen. Gazte zela txirrindularitza probetan lehiatu zen, eta baita txukun jardun ere, laugarren tokian sailkatu baitzen Baztango Itzulian. Baina txirrindula utzi zuenean ere, urte anitz eman zituen lasterketak antolatzen Elizondon. Bertze horrenbertze egin zuen *Antxitonea* trinketeen antolatutako pilota partidekin, edota lasterketekin.

Izetaren izena Baztango mutildantzekin ere lotzen da. Eta ez da gutiagorako. 15 urte baino ez zituela dantzatu zuen lehenbiziko aldiz Baztango mutil-dantza Santiago Bestetan. Urte anitzez, gainera, mutildantzen aitzindari izan zen Elizondoko Bestetan. Jende anitzi erakutsi zizkion dantza horiek, eta han hemen ibili zen Baztango dantzak hedatzen, Maurizio eta Felix txistulari eta atabalaria lagun zituela.

Bizi egiten zituen mutil-dantzak, eta hala agertarazi zuen elkarrizketa batean. «Haurretan ikasi nituen, hamabi urtetako. Elizondon badi-



Kirola zen bertze pasioetakoa, eta txirrindula gainean ere ibili zen. Irudia 1933an hartua da, eta proba horretan laugarren tokian gelditu zen

ra bi gizon behar ditugunak aipatu mutildantzetan. Remijio Lizasoain, eta geroxeago Tomas Garaioa. Hauek biek anitz mutildantza erakutsi zituzten. Arizkundarrak eta erratzuarrak ere dantzari onak ziren. Gartzainen ere bazen talde bat ona. Gero gerla etorri zen eta arrunt apalduak egon ziren. Herriko etxeak ondotik eman zuen laguntza eta hasi ziren Antonio eta Maurizio Elizalde Elizondoko

trinketean erakusten. Jende asko etortzen zen eta berriro mutil-dantzak piztu ziren. Lan handia egin dute Elizondon Manola Arburuak, Joxe Mari Sagastibeltzak, txistularia, eta orain Manolo Biguria eta Barraganek», agertu zuen *Eginen* Baztandarren Biltzarrak omenaldia egin zionean, 1983an. Dantzari guztien artean lehenbizikoa izan zen Mariano, aitzindari. «Aitzindari 1933.etik gaur arte. Berrogeita



Baztandarren Biltzarra urteko zitarik garrantzitsuenetakoa da baztandarrentzat, eta baita Izetarentzat ere



Elizondoko abesbatzarekin 1952an, Londresen



1955eko Santiago egunean, aitzindari zela

hamar urte. Mutil-dantzak ez dira sekula galduak egon, ahul bai. Mauriziok pentagraman ezarri zituen hamabortz mutiladantzak eta gaur herri guztietan dantzaten dira eta herri anitzetara Maurizio joaten da erakustera herri besta bezperatan. Lan handia egin da Baztanen irauteko bere euskal kulturarekin, nola dantzetan, nola hizkuntzan.»



15 urtekin hasi zen Mutil-dantza dantzaten, eta 50 urte baino gehiagotan jardun zuen

Dantzarekin bezala, Elizondoko abesbatzarekin ere urte anitz eman zituen kantuan. Europako lurretan barna bidaiatzeko parada izan zuen horri esker, bertzeak bertze Londres eta Bruselan izan zen kantuan. 1952an Llangolenera joan zen Elizondoko Koralarrekin, eta lehenbiziko saria jaso zuen han.



Belgikara joan zen kantura 1958an

Lan eskerga

Lan eskerga hau guztia ordaintzeko asmotan omenaldi anitz jasotakoa da Mariano Izeta. Ordaintzeko zaila izanagatik, herritarren eskerona jaso zuen, bederen, Izetak. 1972an Club Deportivo Baztan kirol taldeak egin zion omenaldia. Talde horretako diru kontuak eraman zituen hainbertze urtez, eta elkarte horrek antolatutako ekitaldi anitzetako bultzatzaile izan zen. Baina Elizondoko herriak ere bere omenaldia egin zion 1978an, eta ondotik eto-

rriko zen *Baztandarren Biltzarra Elkarteak* 1983an egindakoa. Euskara eta euskal kultura hedatzeko Baztanen sortutako elkarte honek harreman estua izan zuen Marianorekin. 2001ean Baztandarren Biltzarrak bere lana gogora ekarri zuen, lehenbiziko aldia baitzen besta horrek Marianoren presentziarik ez zuela. Herri guztiek eta antolakuntzak bere irudia gogora ekarri zuten.

1983an ere Lesakan Dionisio Muxikak antolatuta bertze omenaldi bat jaso zuen, martxo-



Baztango seme kuttun izendapena jaso zuen 1997an, Patxiku Oiartzabal Baztango alkatearen eskutik



1992ko urtarrilaren 19an, Bertso Egunean, omenaldi beroa jaso zuen

ren 27an. Urte hartan hirugarren omenaldi bat egin zioten, Gipuzkoako Dantzari Elkartearen eskutik honakoa, Donostian.

Omenaldirik kuttunenak, hala ere, 1990eko apirilaren 22an Xorroxin Irratiak egindakoa eta 1991n Baztango Balleko Etxeak eta Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarteak elkarrekin egin zizkietenak izan ziren. 1992an Bertso Egunean Bertsozale Elkartearen omenaldia jaso zuen, Teodoro Hernandorena eta Emile Larrerekin batera. Bertso inguruaren eskerrona jaso zuen. 1997an Baztango Udalak Baztango seme kuttun izendatu zuen, eta bere izenean plaza bat paratu zioten Eli-

zondon. Geroztik, Ttipi-ttapa Fundazioak (izen bereko aldizkari eta telebista kudeatzen duena, Nafarroako mendialdean), Zarauzko Udalak eta Arkupeak Jubilatuta Elkarteak bere omenaldia egin zioten, azken hau 2000ko urriaren 11n.

Donostiako Victoria Eugenia antzokian Bertso Egunean omenaldia jaso ondoren, Euskaldunon Egunkarian zuen Bidezidorrak zutabean gisa honetan eskertu zuen omenaldia:

Egun hunkigarria

Berriz ere eskerrak eman beharrean aurkitzen naiz eta oraingoan, Hernandorena,



Emile Larre eta Teodoro Hernandorenak bezala, lan eskerga egin zuen bertsolaritzaren alde, euskararentzat hain zailak izan ziren urteetan

Larre eta Izetak osatzen dugun hirukotea omendu gaituztelako eta gure eskerrak berotasun berezi bat daukalakotz. Egun gogoangarria 1992ko urtarrilaren 19a. Euskalerriko Bertsolari Elkartek eskeini digun Omenaldia guztien gañekoa izan da eta egun hortako oroitzapena geren bihotzetan kokaturik geldituko da.

«Victoria Eugenia» antzokia bertsozalez bete zen eta bai bertsoenganako maitasuna kartsuki erakusten zutela. Bertsolariek eskeini ziguten kantaldia goi mailakoa izan da, hor ziren Euskalerriko bertsolari gehienak eta omenduen aldetik hauek ere har dezatela gure eskerrik kartsuenak. Euskitzek eta Muruak aurkezturik bertsoaldi atsegin-garria eta denen gogokoa izan zen, gu hiruok laudorioz eta goresmenez bete ginduztela. Opariak ere hartu gintuen, Euskalerriko Bertsolari Elkartearengandik eta bai Gi-



Nafarroako Bertsozale Elkarteko Ohorezko lehendakaria izan zen. Bittor Elizagoien bertsolari baztandarrarekin, Nafarroako Bertsolari Txapelketako final batean

puzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua eta Donostiako Udaletik ere. Gure eskerrak denei.

Joandeneke hogeita hamabi urte hoketan holaxe gabiltza bertsolarien mundu hontan. 1960garren urtean Nafarroako Bertsolari Txapelketa berpiztu ginuenetik hortxe gabiltza Nafarroako Bertsolaritza indartu beharrez. Lan handia egin da eta badirudi aurrerapen handia egin dela, badugu urte andana bat «Nafarroako Bertsolarien Lagunak» deitzen dugun Elkartea sortu zela eta hementxe ditugu nafartar bertsolari guziak bilduak eta zaletasun handiz lanean ari direnak. Bertso eskola ere badaukagu eta zitu ona ematen ari da. Irakasleak bi bertsolari nafartar ditugu eta zaletasun handiz ari dira lanean. Gure goresmenak. Erran dezadan ere aurtengo Nafarroako Txapelketan, bertso eskolako bi gaztetxo ari beharrak



Marianok Gabriela Goñi bere emaztea izan du uneoro ondoan

direla, mutikoa eta neskatikoa. Hau pozgarria da. Beti ere aurrera goaz eta ez dezagun iñolaz ere bertsolaritza galtzera utzi. Izan gaitezen euskaltzale.

Ezbairik gabe, Marianoren nortasuna agerian uzten duen testua da honakoa. Marianoz solastatzerakoan, jende anitzek erran izan du bere herrian profeta izatea erdietsi duen gizon bakarrenetakoa dela.

2001eko urtarrilaren 8an bere etxean zendu zen, 85 urte zituela. Jabier eta Juan Migel txistulari eta atabalari arizkundarrek Alkate soi-

nua joz sartu zen elizan, hilkutxak gainean Baztango ikurrina zuela.

Hileta elizkizunetara jendea anitz agertu zen, euskal kulturako ordezkari franko, eta herri-tar anitz. Hutsune nabarmena sumatu zen, hala ere, Nafarroako Gobernuako agintariena. Urte anitzetan *Principe de Viana* aldizkarian idatzi bazuen ere, eta bere azken lanak Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikako Zuzendaritzak argitaratu bazituen ere, gizon handi honen hiletetara ez zen Nafarroako Gobernuako ordezkari politikorik agertu, eta horrek jendearen haserrea eragin zuen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Izeta-Goñi sendia*
- *Xorroxin Irratia*
- *Xenpelar Dokumentazio Zentroa*
- *Nafarroako Bertsozale Elkarte*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1861-4 (Lan osoarena)
84-457-1862-2

L.G.: VI-442/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística